

Jainko ezezaguna

Grezian antzinako aldare batzu agertu izan dira, idazki hau dutenak: "Jainko ezezagunei". Horrela, jakinezagatik gurtzarik gabe geldi zitezkeen edozein jainko ohoratzen bide zuten.

Apostoluen Eginak liburuaren arabera, S. Paulok atenatarrei Ebanjelioa zabaltzen ari zela aurkitu omen zuen aldare bat, "Jainko ezezagunari" eskainia. Berak adierazten dien Jainkoa horixe dela esaten die, beraiek eza-gutzen ez dutena hain zuzen: Jainko bakarra, diren guztien egilea.

Ik. Gurtza(pena); Politeismoa.

Jainko gorena

Hainbat Herri primitibotako erlijio-mo-
dua adierazteko "Jainko gorenarenganako si-
nesmena" erabili izan dute erlijio-zien-
tziek. Zientzilari batzuk, batez ere W.
Schmidt-ek, Herri horien *monoteismo gisa
ulertu nahi dute sineste hori.

Jainko gorena *zeruarekin --Jainko zeru-
tarrarekin-- ere berdindu ohi dute, eta
*eguzkiarekin lotuta dago sarritan; orokorki
zerutikako fenomenoen jauntzat aitortzen du-
te. Munduaren sortzailea eta *aita uniber-
tsala omen da, izan ere, bera. Batzutan, oso
urrutikoa gertatzen da Jainko gorena eta ez
diote jaurespenik ere eskaintzen.

Herri bakoitzean bere izen propioa har-
tzen du Jainko gorenak, eta bakoitzean bere
ezaugarriak ditu.

Ik. Lehen alditako goi-agerkundera.

Jainko-herria

Israelgo Herriak elkarte gisa zuen titulu-
lua, Jainkoak aukeratutzat bait zeukan bere
burua. Sarritan horren benetako izen propio
bihurtzen da. Beste Herri guztietatik be-
reizten da horrela, berarekin egin omen due-
lako Jainkoak bere *ituna, edo elkargoa
lotu.

Israelen izen hori, gero titulu nagusi
eta behinenaren legez kristau-Elizari pasako
dio Testamentu Berriak. Israelen etniari eta
geografiari loturik dago Jainkoaren Herria:
erlijiozko etnozentrismoan txertatua dago,
erlijioa bera etnikoa delako. Jainkoaren
Herri berria --Eliza-- etniez gaindikoa da
eta funtsean eta helburuz unibertsala. Ik.
Erlijio unibertsala; Nazio-erlijioa.

Vatikanoko II. Kontzilioaren Lumen gen-
tium Konstituzio dogmatikoak "Jainkoaren he-
rria" jartzen du Elizaren definizio funtsez-
kotzat. Horakoak dira eliztar edo Elizako
batzarkide guztiak, bakoitzak *elkartean be-
rea duen *karisma eta egitekoa betetzen due-

la. *Bataioaren bidez sartzen da kristaua
Elizara eta "herritar" bihurtzen: eta kris-
tau bakoitzak, eliztar izate hutsez, bere
eskubideak eta eginbideak ditu.

Beste mailatan, Jainkoaren Herri be-
rriak, unibertsala izanik, munduko Herri ba-
koitzean txertaturiko kristau-elkartea adie-
razten du. Kultura bakoitzari moldatzera edo
aurrintzera deitua dago Eliza, benetan uni-
bertsala --eta aldi berean lekuan lekukoa--
izan nahi badu.

Moldatzearekin, berriz, kulturazko ba-
lioak beretu egiten ditu Elizak; eta horrela
kultura bakoitza "kristau-balioez" irudibe-
rritu eta taxuberritu egin behar du, teolo-
giaren arabera. Kultura --Herri-- bakoitzean
kulturaztatu egin behar du Elizak bere bu-
rria: Horrixe deritza haragipen-legea, Kris-
togan bete zen arabera, Eliza unibertsalean
betetzekoa. Traszendental da Elizaren era-
gin teologikoa kulturari, eta ez zuzenean
kulturaren mailakoa. Horri deritza kultura-
ren Eliz irudiera edo konfigurazioa, balio
eta egitura kulturazkoak Elizaren jainkozko
*irudian txertatzea eta balioberritzea. Ik.
Kulturaztapena; Akulturazioa.

"Jainko-herria" kontzeptua hirugarren
adiera batez ere erabiltzen da; hots, Eliz
*hierarkiatik aparte kristauen multzoa
adierazteko: "kristau-herria" esaten da,
adibidez. Eliza bera Jainkoaren Herritzat
definitzen delarik, hori osotzen duten
*eliztarren basea da behinena eta aurrena.
Alderdi hau balioztatzea dator gaur Eliza
herritarraren edo oinarriko kristau-elkar-
teen mugimendua.

Ik. Eliza; Elizaren katolikotasuna; Eliza
partikularra; Eliza herritarra; Oinarri-
ko kristau-elkartea.

Paulo Agirrebaltzategi

Jainko-hilketa

Garai batean *Jesukristo hiltzea adie-
razteko, bestetarako ez zen erabiltzen. Eta
judutarrei jainko-hiltzaile deitura eman
zieten kristauak. Erlijioen historiak zabal-
du egin da kontzeptua, erlijio askotan ager-
tzen den erritua adierazteko: hau da, jain-
koren bat edo jainkozkoaren bat hiltzeko
erritua. *Misterio-erlijioetan aurkitzen da
batez ere erritua hori.

Ik. Jainkoaren heriotzaren teologia.

Jainko-umetza

Sin.: Jainkozko haurtasuna

Jainkoaren ume (seme nahiz alaba) izatea
adierazteko erabiltzen den esakunea. *Poli-